

2014EKO AZAROAREN 25.a INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Gaur, azaroaren 25ean, genero indarkeria guztien aurka borrokatzen jarraitzeko, hainbeste indarkeriaz eta inpunitatez gogaituta gaudela elkarrekin oihukatzeke, emakume langileok aurrera daramagun borrokan parte hartzera deitzeko, berriro kalera irtengo gara. Sistema zapaltzaile eta patriarkal honen aurka, gobernuek lan eta gizarte eskubideak murrizteari utz diezaioten eta emakume gehiagoren erahilketa eragozteko beharrezkoa dena inbertitu dezaten aldarrikatzeko borroka global bat da.

Berriro ere indarkeria matxistaz Aski da! diogu, bizi dugun sistema patriarkalaren barneko sexuen arteko desberdintasuna eragiten duen estatuaren indarkeriaz Aski da! diogu.

Haien utzikeriak, ezgaitasunak eta axolagabekeriak krimen patriarkal hauen jarraipena ahalbideratzen dutela jakiteak administrazio ezberdinetako agintariak lotsatu beharko lituzke. Aurten, ere aurreko urteetan bezela, biktimen kopurua handitzearen eta indarkeria matxistak erahildako emakumeen kopurua izugarria izatearen erantzule zuzenak dira.

Azaroaren 25.a egun bat da, baina genero indarkeria egunero presente dago, kalean, eskolan, telebistan Edozein gizarte esparrutan erasotzaile bat ezkutatu daiteke. Genero indarkeria eragiteko modu asko daudelako, hura betirako gure bizitzatik desagertarazteko eskura daukragun arlo guztietatik lan egin behar dugu: lana, kultura, sindikalgintza, hezkuntza, elkartasuna, juridikoa .

Emakumeen hilketak bizi dugun eta zapaltzen gaituen kultura patriarkal zabalaren aurpegi ikusgarriena da; emakumeen gaineko gizonon domeinua bultzatzen duenean, emakumeak gutxiestean, menpekoak direla sinestearaztean, hoiei bigarren mailako rol eta eginkizunak egokitzean oinarritutako kultura bat; emakumea objektu huts moduan, erabiltzeko eta botatzeko salgai bat bezela ikusten duen kultura bat.

LKNtik, hobeto babestu ahal izateko emakumeon autoantolakuntzarako deia egiten dugu, gure askapenarengatik borroka egiteko ekintza zuzenera deitzen dugu. Borrokarako gure tresnak salaketa publikoa, gure eskubideen erabilpena, gure askatasunen garapena, geure arteko elkartasuna aurrera eramatea, berdintasunean oinarritutako hezkuntza, jasaten dugun bidegabekeria eta diskriminazioaren aurkako matxinada dira.

**INDARKERIA GUZTIEKIN AMAITZEKO
EKINTZA ZUZENA!**

ERANTZUNIK GABEKO ERASORIK EZ!

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

A25 EKINTZA ZUZENA!



AUTODEFENTSA

DUINTASUNA

BERDINTASUNA

ERANTZUNIK GABEKO ERASORIK EZ!



LANAREN KONFEDERAKUNDE NAGUSIA

www.egt-lkn.org

www.rojoynegro.info



DIÀ INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

DIÀ INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

DIÀ INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA